

**E Elkarrizketa**

**AMAIA ABERASTURI** › 'Zigortzaileak' filmaren protagonista



«Dantzatzean arazo eta beldur guztiak uxatzen dira; zeruan nagoenaren sentsazioa izaten dut»

ALFONSO ABERASTURI

# «Nolakoak diren jakiteko aurkeztu nintzen castingera»

**Kultura** › Lehenengoz aurkeztu da Amaia Aberasturi casting batera eta 'Zigortzaileak' filmaren protagonista papera lortu du.

I. MENDIETA-G. BARRENETXEA

Amaia Aberasturi (Gautegiz Arteaga, 1997) izango da 'Zigortzaileak' haurrentzako filmean parte hartuko duen aktoreetako bat. Gautegiz Arteagako gazte honek Tai jia praktikatzen du eta txikitatik izan du dantzatzeko zein antzerkia egiteko zaletasuna. Hala ere, orain arte ez du sekula bere burua casting batera aurkeztu. Astelehenean Portugaleten filmatzen hasi diren film horren castingera 1.200 gaztetxotik gora aurkeztu ziren eta horien artean Aberasturi aukeratu zuten, beste sei lagunekin batera.

**Nola sentitu zinen milaka umeren**

**arteen zu aukeratu zintuztela jakitean? Horren esperantzarik ba al zenuen?**

Oso pozik sentitu nintzen eta beste mundu batean nengoela ere pentsatzen hasia nintzen. Oso zaila egiten zitzaidan milaka pertsonatik ni aukeratzeko.

**Nola erabaki zenuen 'Zigortzaileak' filmaren castingera aurkezte?**

Fama School-erako castingean izena eman nahi nuen eta amak burutik saioez nengoela esaten zidan behin eta berriz. Izan ere, jende asko aurkezten da horrelakoetara. Halako batean egunkarian 'Zigortzaileak' filmaren castinga-

ren albistea irakurri zuen amak. Segidan eskolara etorri zen nire bila castingera joateko, nik nahi izanez gero, noski. Amak casting bat zer den jakiteko eraman ninduen batik bat, ideia orokor bat izateko, alegia. Ez zuen ilusio handirik egitea nahi, oso zaila zen guztien artean norbera aukeratzeko eta. Hala ere, azkenean aukeratu egin ninduten!

**Zeintzuk izan ziren castinga gaitzeko burutu beharreko probak?**

Lehenengo castingean kameraren aurrean lasai jokatzeko gaitzaz gaitzaz zuten. Bigarren eta hirugarren castingean, aldid, gidoi bana eman ziguten beratu ikasi eta gero antzezteko.

**Aktore izatea betidanik izan duzun ideia bat da ala kasualitatez gertatu den zerbait al da?**

Jendaurrean antzezteko beti izan

dut gustuko, esaterako, antzokietan. Hala ere, antzerkietan parte hartzea baino, dantza egitea gehiago gustatzen zait. Dantzatzen dudanean arazo eta beldur guztiak uxatzen dira eta zeruan nagoenaren sentsazioa izan dut beti. Oso zaila egin zitzaidan castingean gidoi ikastea eta antzezteko, baina, dantza irakasleen adorea eskertu, ez nuen hain txarto egin, castinga pasatzea lortu nuen eta! Eskerrak eman behar dizkiet dantza irakasle Rosa eta Naiari.

**Zer da zuretzat antzezteko zaletasuna edo etorkizuneko lanbidea?**

Egia esan, antzezteko gero eta gehiago gustatzen zaidan jarduerara delako esan dezaket. Gustatuko litzaidake bai antzezteko eta bai dantzatzeko ere etorkizuneko lanbide bihurtzea, nahiz eta oso zail ikusi. Baina, auskalo!

**Zein izango da filmaren bete be-**

**harko duzun papera? Zeren inguruan datza filmak?**

Beno, badakizu honelakoetan apenas ahal izaten da gauza handirik esan. Hala ere, zerbait aipatuko dizuet: nire pertsonaia nortasun handiko pertsona da. Jasangaitza egiten zaio pertsona batzuek besteekiko jarrera koldarra izatea. Nebarekin eta gurasoekin bizi den neska homi min handia ematen dio norbaitek bere ingurukoak mintzea. Jakinaenez, filma 'bullying'-aren inguruan murgiltzen da. Dibertigarria ez ezik, praktikoa ere iruditzen zait, pertsona batzuek euren izaera koldar horialda dezaten.

**Orain arte entseguak egin izan dituzte. Gaur arte bizitako gustuko izan al duzu? Urduri sentitu al izan duzu zure burua?**

Orain arte bizitako ikaragarri gustatu izan zait. Gainera, aipatzeko da zuzendariak eta atzean dauden beste taldekideek ere portatera bikaina erakutsi dutela gurekiko. Aktoreak janzerakoan, makillatzerakoan eta ilea apaintzerakoan ere detaile polit eta dotoreak izaten dituzte. Urduri nagoen? Ez, urduri ez.

**'Zigortzaileak' filma baino lehen esperientziarik izan al duzu telebista, zine zein antzerki munduan?**

Gernika-Lumoko Lizeo Antzokian dantza izan dut eta Oizmendi telebistan ere agertua izan naiz; baina ez bakarrik lanean, taldean, baizik.

**Zein da gustuko duzun aktorea? Zergatik? Eta filma?**

Nire aktorerik gustukoena Javier Anton (ETB2ko 'Vaya Semanita' saioko aktorea) da. Ez dut arrazoi zehatzik, beti gustatu izan zait. Miley Cyrus ere gustuko dut. Ez dut film gustukoarik, baina hemendik aurrera 'Zigortzaileak' izatea espero dut!

**Zer da aktore izateko gustuko duzuna?**

Gure artean dagoen giroa, esaterako. Baina milaka gauza on ditu aktore izateak.

**Nagusitan Oscar sarietan ikusten al duzu zure burua?**

Ez dakit zer gertatuko den etorkizun batean, ezin da inoiz horrelakorik jakin eta. Orain orainari begiratuko diot eta etorri beharrekoa etorriko da.

**hitza**  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**  
www.busturialdeko-hitza.info

beharrezkoa da datu pertsonal berriztatzea

• Izena, abizena, izena: \_\_\_\_\_

• Abizena: \_\_\_\_\_

• Etorkizuna: \_\_\_\_\_

• Herria: \_\_\_\_\_

• Post-kodua: \_\_\_\_\_

• Telefonoa: \_\_\_\_\_

• E-maila: \_\_\_\_\_

• Post-zerbitzuko kodea: \_\_\_\_\_

• K. hitza: \_\_\_\_\_